

Emakumeen aldarria

ALBERTO BARANDIARAN

Nafarroako Liburutegi Nagusiko bilatzailean, emakumea eta generoa hitzak idatziz gero, depresio sakona eragiten dizu. 40 izenburu baino ez dira agertzen. Gure liburutegian, 10.000 material baino gehiago ditugu, 7.000 izenburu baino gehiago.

IPES elkarteak Iruñeko Telleria kalean duen egoitzako Emakumeen Liburutegiko arduradunetako bat da Silvia Fernandez. Eta hogeitaz han bildu duten materialaren balioa aldarrikatzen du, oroz gain. Jende asko literatura bila etortzen da, eleberri eske. Baina generoaren gaia ikertzen ari diren irakasle eta ikasle asko iristen zaizkigu. Hemen dagoen materialarekin, tesiak egin izan dira. 1985ean sortu zen liburutegia, Madrilgo Emakumeen Institutuak utzitako 400 libururekin.

60ko eta 70eko hamarkadan, emakumeei buruzko ikerketen gorakadaren arrimuan, bilduma, ikerketa eta txosten ugari argitaratu ziren. Laurehun liburu haiekin, IPESek liburutegia zabaltzea erabaki zuen. Europako herrialde askotan egiten ari zirenen antzeko bilduma osatzea zen helburua, baina noraino irits zitekeen oso ondo jakin gabe. Etxean genituen materialak edo atzerrian erosten genituen liburuak ekarri genituen askok eta askok, dio Silvia Fernandezek. Autogestionatua izan zela, neurri batean. Sortu eta berehala desegiten ziren emakume taldeei buruzko txosten eta agiriak, alderdien legeak, luzaro iraun zuten emakume taldeen eztabaida txostenak... Guztien gaineko informazioa bildu zuten Franco hil ondorengo urteetan, eta daukaten asko eta asko ezezaguna da oraindik.

Erosi, ordea, gutxi erosten zuten hasieran, gutxi argitaratzen zelako. Egun, guztiz bestelakoa da egoera. Askok argitaratzen da, institutu ofizialak badaude, eta material ugari sortzen da. Nolanahi ere, informazioa gu biltzen saiatzen gara. Bi irizpide ditugu: emakumeek idatzitako eleberriak, eta emakumea eta generoaren gaiarekin lotutako lanak. Baina liburutegiek ez dute amaierarik, badakigu.

Eta gaiak aldatu dira gainera. Hasi zirenean, sexualitatearen eta teoria feministen inguruko argitalpenak ziren izarrak. Orain, bortizkeria da, eta prostituzioa. Eta familia eta lana elkartzeko estrategiak, eta legedia. Eta orain, gainera, sekulako ikerketa eta gogoeta teorikoa egiten ari da. Paradigmak eraisteko lanean dihardute emakume asko eta askok, historia berriro egiteko, eta ideia ukiezinak ukitzeko. Baina....

Baina historia duela 30 urte bezala irakasten da. Eta horrek sutu egiten du Silvia Fernandez. Gizarte Lana amaitu duten ikasleek ez dakite nor den Blanca Campoamor. Ez dakite emakumeek bozkatzeko eskubidea duela gutxi lortu zutela, ez dute ezberdintasunen kontzientziarik. Arrastorik ere ez! Unibertsitatean ez da lan hori sartzen ari, ematen du ez dugula batere aurreratu.

Printzak

Langaiak izeneko aldizkaria koordinatzen hasi zen lanean IPESen, 1982an. Bazkide izan behar dut?. Hori da gehien gorrotatzen duen galdera. Liburutegia irekia dagoela azpimarratu du. Lan egiten duen tokitik hurbil, oso hurbil jaio zen: Euskal Jairen eraikinean. Egun orube handia dago bertan, autoz beteta.